

EUSKARARI BURUZKO IRITZIAK
(2022ko abendua)
Prensa oharra

SARRERA

Azterlan honen helburua euskara sustatzeko ekimen posibleei buruz herritarrek duten iritzia biltzea izan da. Landa-lana 2022ko azaroaren 16tik 22ra egin zen.

EMAITZAK

Euskara sustatzeko ekintzek herritarren babesa jaso dute

EAE n euskara sustatzeko interesgarriak izan daitezkeen hainbat neurri aurkeztu dizkiegu herritarrei, eta guztiek herritarren gehiengo zabalaren babesa jaso dute, hurrenkera honetan: “administrazioak herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan erantzun beharko luke beti” (%95 oso edo nahikoa ados), “euskaltegian euskara ikasi nahi duenari bere beharren arabera eskaintza egin beharko litzaioke” (%95), “enpresek edota entitate pribatuek herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan erantzuteko edo atenditzeko ahalegina egin beharko lukete” (%90), “gazteek interneten euskaraz jardun dezaten, euskarazko eskaintza sustatu beharko litzateke” (%84), “euskararen ezagutza eta erabilera nagusi diren guneak eratu eta babestu beharko lirateke” (%84), “saltokietan ikur bat jarri beharko litzateke, bezeroak erosketak euskaraz egin ditzakela jakin dezan” (%78), eta, azkenik, “euskara zabaltzeko ezinbesteko tresna direnez, euskarazko hedabideak berariaz babestu beharko lirateke” (%78).

Gehiengoa ados agertu da ere “enpresek langile gazteei euskaraz jardun dezaten aukera eman beharko liekete” ideiarekin (%85). Eta baita ere, maila apalagoan bada ere, eskolaz kanpoko “kirol jarduerak” (%66) eta “aisialdi jarduerak” (%65) euskaraz egin beharko liratekeela esatean.

Euskara bultzatzeko lehentasunezko esparruak hezkuntza eta administrazio publikoa, besteak beste

Hizkuntza sustatzeko aurkeztutako eremu guztiak lehentasunezko zatik jo dira, garrantziaren arabera hurrenkera honekin: ikastetxeak (hamarretik 8,6), administrazio publikoa (7,8), ekintza kulturalak eta hedabideak (7,4), osasun-zentroak (7,3), ingurune digitala (7,2), kirola (7,1), eta aisialdia (7,0); herritarren ustez, lehentasun apalena dutenak dira merkataritza (6,9) eta lantokiak (6,6).

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1.200 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm\%$ 2,89koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2022ko azaroaren 16a eta 22a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

<http://www.euskadi.eus/ikerketa-soziologikoak>

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 22a